

ELURRA


Errepika :

Negu goiz batez, iratzartzean,
lurra oihal xuritan.
Xori guziak ixildu dira
sendi baitute hotza.

Hori ikustean, haurra xoratu
ta kanpora abiatu.
Elur lumetan bira-biraka
ibilki da jauzika.

Elur panpin bat du eraikiko,
ixiltasuna gozatu.
Elurte horrek eskaintzen baitio
haurñoari sosegu.

Errepika.



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Doinu zail bat gogoan hartu. Zuzen kantatu. Irudien bidez, kantua ikasi.	- Bestekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. - Musika talde-ihardueretan parte hartu. - Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. - Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez. - Soinuen munduari adi izan ; soinu zenbaiten ezaugarriak bereizi eta ezagutu.	- Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; bestekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. - Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. - Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MUNDUAN IHARDUN. Lege (kode) eta irudiak landu.	Gauzen ezaugarri zenbait ezagutu, horien konparatzeko, bereizteko, sailkatzeko eta ordenatzeko.	Bere burua denbora hurbilean kokatu eta hasi kronologiari oihartzeko.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Lexikoa landu. + ikus hizkuntza helburuak hurrengo orrian.	- Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. - Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. - Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. - Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. - Gramatika arau batzuei ohartu (pluralaren marka,...). - Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.	- Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. - Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. - Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). - Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	

USTIAPENA (egin moldea)

Karta jokoa. Zortzi karta doazkizu hurrengo orrian mozteko : euria, elurra, haizea, barazuza/txingorra/kaskabarra/zitzerra, eguzkia, ximixa, hedoiak /hodeia, ortzadarra.

1. Sailkapenak egin daitezke : harrabots/azantza/zarata egiten dutenak eta ixilak direnak.
2. Erakasleak/animatzaileak karta joko bera, eranskinean den bezala fotokopiatzen du eta haurrei bedera/bana emaiten. Ondotik, hotsak egiten ditu. Haurrek hots bakoitzari doakion ikurra margoz inguratzen dute.
3. Taldean, haur bakoitzari karta bat erakusten zaio. Kartari doakion hotsa egiten du edo ixilik egoiten da.
4. Irudi ordenari jarraikiz, haurrak hots sekuentziak sortu behar ditu.
5. Elurraren imitatze materiala aurkitu (material astunetatik bereiziz). Elurraren erortzearen imitatze gauza arinak eta ixilak hautatu : kotoina, xeheki moztu papera, luma...
6. Hunkimenaren zentzua landu : hotza senditu, heinak agertuz (ur hotzetik izotzeraino).

Oharra. Hona hemen hotsen adierazteko taula proposamen bat :

EURIA	ELURRA	HAIZEA	BARAZUZA	EGUZKIA	GALERNA		HODEIA	ORTZADARRA
					ximixa	ortzantza		
Plik plak plok edo erhiekin esku ahurrean jo		Fuuuuu. edo bi paper orri elgarren kontra igurtzi	Kas kas kas edo erhi punta batekin paper orria jo			Brruum		

HIZKUNTZA HELBURUAK :

1. Karta jokoa.

Ezezko formak : Hedoiak ez du harrabotsik/azantzarik /zaratarik egiten.
Ergatiboa : Euria erortzen da. Euriak harrabotsa egiten du.

2. “Erakasleak harrabotsa...”.

Noren...? Zeren...? Euriaren harrabotsa/azantza/zarata egin duzu.
** edun aditz lag. :* Jokoa. Ikus *Haizea* (haurrak bi multzotan).
 Euriaren harrabotsa/soinua egin duzue.
Ezezko formak : Ez, ez dugu euriaren harrabotsa/soinua egin.

